

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

Gasteizko enpresei energiarekin lotutako gastuak murrizten laguntzeko karbono maila txikiko ekonomia kostuak aurrezteko udal programaren bigarren deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak –2017. urtea–

Europako Batzordearen “Horizonte 2020” esparru-programaren barruan bada gizarte erronka deritzenei buruzko berariazko lan-programa bat. Horien artean klima-aldaketa nabarmentzen da, eta horri aurka egiteko hainbat neurri proposatzen. Horietako bat, ekonomia karbono-gabetzean datza, energia-kontsumoa murriztuz eta optimizatuz.

Ekonomia karbono-gabetzeak badu bestelako interesik ingurumen arlokoaz gain. Energiaren kostua enpresen eta lurraldeen lehiakortasuna mugatu dezakeen faktorea da, batez ere gure merkatuan, energia kontsumoari lotutako kosteak gure inguruko ekonomienak baino askoz handiagoak baitira, bereziki kontsumo elektrikoari dagozkionak.

Bestalde, Europar Batasunak, “per capita” munduko baliabide naturalen inportatzailerik handiena den aldetik, mendekotasun handia du ziurgabetasun egoera handia duten nazioarteko merkatuetako baldintzekiko –bereziki baliabide energetikoen merkatuetako baldintzekiko–.

Bi alderdi horiek (prezioak eta munduko energia-azoken ziurgabetasunak) eta enpresen ekoizpen prozesuetan eta instalazioetan energia-kontsumoa optimizatzeko dagoen beharra direla eta, Gasteizko udalak udalerriko enpresa txikiekiko lankidetzeta programa hau bultzatu du, energia auditoriak susta daitezen.

Gasteizek badu “Itun Berdearen Komunitatea” hirian, eta horrek ingurumen kudeaketarekin konprometitutako profesional eta enpresen sarea sortzea du helburu. Komunitateko partaide izateak ingurumen-konpromisoak aurrera eramateko, eta beren jarduera eraginkortasun handiagoz ekoitzi, banatu eta kontsumitzeko aukera ematen die enpresei. Programak Itun Berdearen erronketako bati erantzun nahi dio: enpresa-kudeaketan energia-eraginkortasunaren kultura sartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko uztailaren 28an egindako bilkuran onetsi zituen Gasteizko enpresei energiarekin lotutako gastuak murrizten laguntzeko den karbono maila txikiko ekonomia kostuak aurrezteko udal programaren bigarren deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak –2017. urtea–.

Hori betetze aldera, programaren deialdia argitara ematen da, arautuko duten oinarriekin batera:

1. oinarria. Xedea eta aplikazio-eremua

“Karbono maila txikiko ekonomia kostuak aurrezteko” udal programa arautzea du xede, zein Gasteizko udalerrian helbideratutako edo bertan lan-zentroa duten 15 enpresa txikiri, auditoriaren alorreko aholkularitza espezializatu zerbitzua doan eskaintzeko baita, helburu hauek dituelarik:

- Energia-efizientziarako neurrien ezarpena bultzatzea
- Enpresei produkzio-prozesuak eta, halakorik badute, klimatizazioa optimizatzen laguntzea, energia-kontsumoa murriztearren.

- Energia gastua murrizten laguntzea, energiaren kontratazioa optimizatuz.
- Industria-prozesuek eta produkzio-instalazioen klimatizazioak sortutako negutegi efektuko gas gutxiago isur daitezten laguntzea, eta beraz, industria sektorearen karbono-aztarna –eta oro har Gasteiz osoarena– txikitzea.

2. oinarria. Programaz baliatu nahi duten enpresek bete beharreko baldintzak

1. Egoitza soziala edo ekoizpen zentro bat Gasteizen izatea.
2. Enpresa txikia izatea (50 langile baino gutxiago izatea eta urteko negozio-bolumenak edo urteko balantze orokorrak 10 milioi euroko kopurua ez gainditzea). Europar Batasunaren 651/2014 Araudiaren I. eranskineko 1. artikuluan xedatutakoa joko da enpresatzat: jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen entitate oro, edozein delarik ere haren forma juridikoa.
3. Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea.
4. Jarduera legezko, bidezko eta etikoa garatzea.
5. Energia kontsumitzen duen produkzio-prozesuren bat edo instalazioak klimatizatzeko sistemaren bat izatea.
6. Epai irmoa dela medio kondematuta ez egotea, edo delitu ekonomiko, laboral edo inguru-menaren kontrakoengatik prozesatua.
7. Administrazio publikoen aurreko zerga-betebeharrak egunean edukitzea, baita Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere. Eskabidea aurkezten den unean ez ezik, enpresak programan parte hartzen duen denbora guztian ere bete beharko da betebeharrak.

3. oinarria. Parte hartzen duten enpresen eskubideak eta betebeharrak

Karbono maila txikiko ekonomia kostuak aurrezteko programan parte hartzen duten enpresek onura hauek jasotzeko eskubidea izango dute:

- Doako aholkularitza espezializatua jasotzea, 5 hilabetez (gutxi gorabehera 20 ordu, enpresaren beharren arabera). 2.000,00 euroan balioetsita dago, eta alderdi hauek barne hartzen ditu:
 - Energia-kontsumoaren azterketa.
 - Karbono-aztarnaren kalkulua.
 - Energia-kontsumoaren puntu kritikoak identifikatzea.
 - Kontsumoak murrizteko eta energia kostuetan aurrezteko proposamenak.
 - Produkzio prozesuari, produktuari edo instalazioei dagokienez konfidentziala izan daitekeen informazioa isilpean gordetzea.
 - Udalak enpresaren publizitatea egitea karbono maila txikiko ekonomiaren estrategia ezarri energiaren erabilera eraginkorraren aldeko apustua egiteagatik, horretarako dituen kanalak baliatuz (web-orria, buletina, ...).
- “Karbono maila txikiko ekonomia kostuak aurrezteko” programan parte hartzen duten enpresek betebeharrak hauek izango dituzte:
 - Gasteizko Udalak eskatutako informazioa eta dokumentazioa ematea.
 - Proposatzen zaizkien zero kostuko neurriak –gutxienez– ezartzea.
 - Aurrezten duten diruaren ehuneko bat energia-kontsumoa murrizteko beste neurri batzuetan inbertitzea.
 - Karbono maila txikiko ekonomiaren aldeko jardunbide ona udalaren web-orrian argitaratzeko baimena ematea.
 - Itun Berdeari atxikitzea.

4. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn iragartzen den egunaren biharamunetik jarriko dira indarrean oinarri hauek.

Deialdia indarrean jartzen delarik zabalduko da eskabideak aurkezteko epea, eta deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 30 egun naturaleko epea igarotzen delarik bukatuko. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Eskabideek deialdiko I. eranskinari jarraiki aurkeztuko dira, eta nahitaezko agiriekin batera aurkeztuko, herritarrei laguntzeko bulegoetan nahiz legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen ildotik.

Interesdunek eskabidea aurkezten dutelarik, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

5. oinarria. Aurkeztu beharreko agiriak

Eskabide orria eta zinpeko aitorpena (I. eranskina), bertan eskatzen diren datuak beteta:

- Kontratututako potentzia (kW).
- 2017ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean kontsumitutako energia elektrikoaren batura (kWh).
- Beste energia-kontsumorik (berokuntza) dagoen: gas naturala, gasolioa, etab.
- Eskabidea egiteko arrazoiak (orrialde bat gehienez).

Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak betetzeari dagokionean, ofizios begiratuko da eskatzailea egunean dagoen.

Eskabidea aurkezteak Gasteizko Udalarari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean eskatzeko baimena ematea dakar berekin (I. eranskina). Hala ere, eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimen hori. Horrela bada, Arabako Foru Aldundirekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak ordainduak dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

6. oinarria. Eskabideak balioestea

Irizpide eta puntuazio hauek hartuko dira aintzat eskabideak balioesteko:

1. 2017ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean kontsumitutako energia elektriko (kWh): 20 puntu gehienez.

- a. 50.000 kWh baino gehiago, 20 puntu.
- b. 25.000 kWh-tik 49.999 kWh-ra bitartean: 15 puntu.
- c. 12.500 kWh-tik 24.999 kWh-ra bitartean: 10 puntu.
- d. 12.500 kWh baino gutxiago: 5 puntu.

2. Kontratututako potentzia (kW): 20 puntu gehienez.

- a. 500 kW baino gehiago: 20 puntu
- b. 100 kW-tik 499 kW-ra bitartean: 15 puntu
- c. 20 kW-tik 99 kW-ra bitartean: 10 puntu
- d. 20 kW baino gutxiago: 5 puntu

3. Beste energia-kontsumoak (gas naturala, gasolioa, etab.): 20 puntu gehienez.

- a. Elektrizitatea + berokuntzarako erregaia: 20 puntu.

- b. Elektrizitatea bakarrik: 10 puntu.
 - 4. Enpresaren tamaina: 20 puntu gehienez.
 - a. 1-9 pertsona: 20 puntu.
 - b. 10-24 pertsona: 15 puntu.
 - c. 25-49 pertsona: 10 puntu.
 - 5. Eskabidearen motibazioa: 10 puntu gehienez.
 - 6. Itun Berdeari atxikitzea: 10 puntu.
- Gehieneko puntuazioa: 100 puntu.
- Puntuazio handiena lortzen duten 15 enpresak hautatuko dira.

7. oinarria. Prozedura

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Hautatze eta jarraipen batzorde bat eratuko da horretarako, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zuzendariak, Enpresen Zerbitzuko buruak eta saileko teknikariek osatua, zein arduratuko baita aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeaz, Enpresen Zerbitzuko teknikariek txostena egin ondoren. Ofizioz egiaztatuko da Itun Berdera atxikita dagoen.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, eta, hortaz, aurkezten diren proiektuen arteko alderaketa egingo da.

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez eman edo ukatuko da eskatutako zerbitzua, hautatze- eta jarraipen-batzordearen proposamenaren ildotik.

8. oinarria. Enpresa onuradunen publizitatea

ALHAOn eta udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da programa honetako enpresa onuradunen zerrenda.

9. oinarria. Emandako laguntzak aldatzea

Programan parte hartzea onesteko kontuan izandako baldintzak aldatzeak eman zireneko ebazpena aldatzea ekarri ahal izango du berekin, nahiz eta, nolana ere, oinarri hauetan ezarritako baldintzetara moldatu beharko den aldakuntza hori.

10. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Gasteizko Udalak emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko suertatzen diren kontrol eta ebaluazio ekintzak burutu ahalko ditu, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren bitartez.

11. oinarria. Konfidentzialtasun-klausula

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetze aldera, Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela —Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek—. Horien gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko da.

12. oinarria. Akatsak zuzentzea

Eskabideari ez bazaizkio deialdian galdatutako agiriak eransten, hamar eguneko epea emango zaie eskatzaileei falta zaizkien agiriak aurkezteko –Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua ildotik –, eta halaber ohartaraziko hala egin ezean eskabidea bertan behera utzitakotzat joko dela.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko abuztuaren 28an

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI

I. eranskina: eskabidea eta zinpeko aitortpena egiteko orria

<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/64/32/66432.pdf>